

2. ikasgaia.

JURISDIKZIO AHALMENA

1. Botere-banaketaren teoria eta haren ondorioak

Frantziako iraultzako Botere Judiziala

Espainiako egoera

2. Subiranotasuna, boterea, ahalmena, jurisdikzio-ahalmena

3. "Jurisdikzio" kontzeptua eta haren erlatibotasuna

Konstituzioa eta botere judizialari buruzko legeak

4. Jurisdikzio-ahalmena jurisdikzionala eta haren gauzatze-eremua

Jurisdikzioaren esparrua: haren egungo eginkizunak

5. Botere Judizialaren esangura konstituzioan

Botere Judiziala-Jurisdikzioa: organoak

Botere Judizialaren-Antolakuntza: BJLOak aurreikusitako organoak.

Ezaugarriak

1. BOTERE BANAKETAREN TEORIA ETA HAREN ONDORIOAK

Frantziako iraultza gertatu arte, botere guztiak (legegilea, betearazlea eta judiziala) Erregearen esku zeuden. Montesquieau Frantziako iraultzan sortutako mugimenduaren partaidea zen, eta berak aldarrikatzen zuen teoriak —botereen banaketaren teoriak, hain zuzen ere— erregearen monopolioa apurtu nahi zuen. Mugimendu edo korrante horren aburuz, hiru botereak esku berean egonez gero —hau da, pertsona edo organo beraren esku egonez gero— askatasuna desagertu eta boterea erabateko bihurtzen zen. Hori gerta ez zedin, organo ezberdin baten esku geratu behar zuen botere bakoitzak, bestearen kontrapisu gisa jardun zezan, eta haien gaineko kontrola posible egin zezan.

Hala ere, Frantziako iraultzatik jaiotako Botere Judiziala (Montesquieauk sortutakoa, alegia) eta, batez ere, Napoleonen garaikoa ez zen independentea betearazlearekiko, sasoi hartan Gobernuak izendatzen zituelako jurisdikzioko langileak —epaileak barne—. Langile horiek, Gobernuaren menpe jardun behar zutenez, ezin zuten haren kontra jo, azken finean haren agintepean baitzeuden.

Ondorioz, Botere Judiziala betearazlearen menpean zegoen, eta hain gogorra zen menperatze hori, non doktrinak berak bi botere besterik ez zeudela baieztatu baitzuen: alde batetik, Legegilea, legeak egiten dituen, eta bestetik Betearazlea, legeak aplikatzeko. Haien iritziz, Botere Judiziala Betearazlearen barruan zegoen, epaileen betekizun bakarra legeak aplikatzea zelako, inongo interpretaziorik egin gabe.

Horrekin lotuta, gogoan izan behar dugu garai horretan epaileak "legeen ahotzat" jo zituztela, eta ez zegoela lekurik interpretaziorik egiteko. Nolanahi ere, bazeuden iritzi horren kontra zeuden hainbat egile (Carré de Malberg, esaterako), baina doktrinaren gehiengoak uste zuen epaileek legeak aplikatzea besterik ez zutela egin behar.

Espainiako historiari dagokionez, esan dezakegu antzeko garapena jazo zela; izan ere, II. Errepublikan benetako Botere Judiziala ezartzen saiatu bazen ere, gerra zibilak eta jarraian etorritako Francoren diktadurak hori ezartzea eragotzi zuen. Hori dela medio, 1978ko Konstituzio arte ezin dugu esan benetako Botere Judizial independentea dugunik, diktaduraren baitan Botere

Judiziala Botere Betearazlearen aginduak betetzen zituen boterea baino ez zen eta.

2. "SUBIRANOTASUNA", "BOTEREA", "AHALMENA", "JURISDIKZIO AHALMENA "

Atal honetan saiatuko gara subiranotasun, botere, ahalmen eta jurisdikzio-ahalmen kontzeptuen azalpena ematen eta horien arteko bereizketa zein den azaltzen:

Subiranotasuna: absolutu edo erabatekoa —mugarik gabekoa, beraz—, jatorrizkoa eta gorenekoa da. Ez da pertsona edo organo batena, herriarena baizik. Erakundeak eratzeko eta bere burua gobernatzeko (elkarbizitzarako arauak ezartzeko), herritarrek nolabaiteko “boterea” edo “gaitasuna” dugu; azken finean, herriak konstituzio bat ematen dio bere buruari, eta, horrela, eratuta geratzen da. Eta hor dago botere eratzaille edo konstituziogilearen eta botere eratuaren arteko ezberdintasuna, hots, jatorrizko botere bat izango da (subirotasuna, alegia), eta, horrek Estatuaren eratzeko duenean, gainontzeko botereak (Legegile, Betearazle eta Judiziala) eratuta suertatuko dira.

Eta hala azaltzen digu Konstituzioak bere 1.2. artikuluan adierazten duenean subiranotasun nazionala espainiar herrian dagoela eta hortik Estatuaren botereak eratorriko direla.

Ahalmena: subiranotasunaren adarra edo desbideratzea da ahalmena; horren bidez, ahalmenaren jabeek *imperium* deritzon indar berezi bat izango dute. Besteen jokabidea lotestea eta beharrezkoa bada, indarra erabiltzea ahalbidetzen die *imperium* edo indar horrek bere jabeei, betiere dagokien eskumenen eremuan. Beraz, zuzen edo era egokian (legearen arabera) erabiliz gero, ahalmenaren titularrek nagusitasun-lekua izango dute beren eskumenen esparruan.

Boterea: boterearen kontzeptuaren inguruan, teoria ugari eta konplexuak eztabaidatu dira, batez ere zientzia politikoaren esparruan; baina, orain eta gure jakintzagaiari dagokionez, eta boterearen banaketaren teoriari buruz mintzatu garenez, Konstituzioak aurreikusten dituen botere klasikoak hiru direla esango

dugu soilik: Betearazlea, Legegilea eta Judiziala. Botere horiek dagoeneko ez dira izango ez erabatekoak ezta gorenakoak ere, Estatuak dituen eginkizunak antolatzeko eta botere absolutua ekiditeko sortu baitira.

Jurisdikzio-ahalmena: aurretik azaldutako "ahalmen" kontzeptuari zerbait gehitzen zaio hemen, beste ahalmen motetatik bereizteko; hau da, ahalmen gaitu bat dela uler dezakegu. Estatuaren subiranotasunetik datorkigun ahalmena da, epaitegi eta auzitegiek bakar-bakarrik (esklusiboki) egikaritu edo erabiltzen dutena, eta epaitzean -hots, kasu jakinetan zuzenbidea egikaritzean- eta epaitutakoa betearaztean datzana. Dena den, hurrengo ikasgaietan zehar luzez hitz egiteko parada izango dugu jurisdikzio-ahalmenari buruz, eta haren ezaugarriak zein diren sakonki aztertuko dugu.

3. "JURISDIKZIO" KONTZEPTUA ETA HAREN ERLATIBOTASUNA.

Aurretik baieztatu dugu "jurisdikzio" kontzeptua subiranotasunetik datorkigula eta subiranotasuna botere absolutua dela; erabateko botere hori Estatu bakoitzaren konstituzioetan "gauzatuko" da eta hiru botere klasikoak eratu.

Baina konstituzio guztiek ez dute Botere Judiziala era berean eratzen. Konstituzioa eta Botere Judizialari buruzko legeak idazteko orduan, hainbat motatako inguruabarrak hartzen dira aintzat (sozialak, politikoak, historikoak, kulturalak, eta abar), eta, Botere Judizialean ere, islada izango dute inguruabar horiek.

Beraz, kontzeptu erlatibo bat izango da, ez baitago guretzat baliagarria izango den jurisdikzioaren definizio unibertsalik. Ondorioz, une historikoaren arabera, edo Estatu bakoitzaren sistema politikoaren arabera -edo haien arteko ezberdintasunen arabera-, era bateko edo besteko Botere Judiziala izango dugu Estatu bakoitzean (adibidez, alde handia egongo da diktadura bateko eta demokrazia bateko jurisdikzio kontzeptuaren artean).

Horrenbestez, Estatu bateko jurisdikzioaren edukia ezagutzeko, beraren konstituzioari zein Botere Judizialari buruzko legeei egin beharko diegu so beti.

Horrenbestez, guk Espainiako Konstituzioa eta 1985ko Botere Judizialaren Lege Organikoa hartuko ditugu abiaburu.

1978ko Konstituzioak, adibidez, independentzia eta alderdikierarik eza aldarrikatzen ditu Botere Judizialarentzat; Estatuaren beste botereen aurrean, lehendabizikoa eta prozesuko alderdien aurrean, bigarrena. Horren bidez, benetako babes eraginkorra lortu nahi da, eta lehen aipatu dugun Botere Betearazlearen menpean jartze hori desagertu egiten da.

4. JURISDIKZIO AHALMENA ETA HAREN GAUZATZE EREMUA

Atal honetan, lehen jurisdikzio kontzeptuaren erlatibotasunaz esandakoa gogoratu behar dugu, batik bat ikuspuntu historiko batetik. Hasiera batean esan dugu Frantziako iraultzaren ostean epaileen zeregina pertsona pribatuen arteko gataztak ebaztea eta zigorrak ezartzea zela, prozesu zibilean eta penalean, hurrenez hurren.

Izan ere, sasoi hartan, aurretik esan bezala, legea ordenamenduaren gailurra zen; beraz, pentsaezina zen Botere Judizialak legeen konstituzionaltasuna kontrolatzea. Era berean, epaileak izendatzea Betearazleari zegokionez, nekez uler zitekeen epaileek administrazioaren kontra jotzea.

Baina, denbora pasa ahala, Zuzenbide Estatuaren ezaugarriak progresiboki aldatuz joan dira, eta, orain, botereen arteko bereizketa oinarrizko ezaugarrietariko bat dugu. Hala, Botere Judizialak gainerako botereen jarduera fiskalizatzeko gaitasuna du eta, gainera, ez da arauak aplikatzera mugatuko, baizik eta horien interpretazioaz ere arduratuko da. Horrenbestez, Botere Judizialak eskumen gehiago bereganatu ditu, eta gaur egungo jurisdikzioaren esparrua honako hauek dira:

- Gizabanakoen eskubideak babestea (Espainiako Konstituzioaren 24.1. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 7.3. artikulua)
- Zigorrak ezartzeko monopolioa (Espainiako Konstituzioaren 25. artikulua)

- Oinarrizko askatasun eta eskubideak babestea (Espainiako Konstituzioaren 53.2. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 7.1. eta 7.2. artikulua)
- Administrazioaren jardura legezkoa dela kontrolatzea, eta baita ahalmen erregelamendugilea ere (Espainiako Konstituzioaren 106.1. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 8. artikulua)
- Legeen konstituzionaltasuna kontrolatzea (Konstituzio Auzitegiaren 2/1979 Lege Organikoa)

Ondorioz, baieztatu dezakegu Betearazlearekiko independentea izateaz gain Botere Judizialak botere politikoa ere baduela. Botere politikoa horrek, ordea, ez du adierazi nahi alderdi politikoaren esparruan mugitzea edo alderdikoia izatea, estatuko bizitza publikoan garrantzia edo eragina izatea baizik, adibidez, beraren ebazpenak direla bide.

5. BOTERE JUDIZIALAREN ESANGURA KONSTITUZIOAN

Konstituzioak hainbat aldiz aipatzen du Botere Judiziala bere testuan zehar; baina doktrinak aipamen horien analisia egin ostean ondorioztatu du aipamenek bi gauza ezberdini egiten dietela erreferentzia. Beraz, esan dezakegu Konstituzioa Botere Judizialaz mintzatzen denean bi esangura ezberdin erabiltzen dituela:

Alde batetik, **Botere Judiziala-Jurisdikzioa** izeneko dugu, hau da, jurisdikzioa duten organo guztiak bere gain hartzen dituenak. Dakigun moduan, jurisdikzio-ahalmena epaitzean eta epaitutakoa betearaztean datza, eta ahalmena hori duen organo multzoak Botere Judiziala-Jurisdikzioa osatzen du, bizitza publikoan edo Estatuko botere politikoa parte hartzen dutelako.

Multzo horretan, guk ezagutzen ditugun epaitegi eta auzitegi arruntak ez ezik, beste batzuk ere badaude; honako hauek:

- Konstituzio Auzitegia (Espainiako Konstituzioaren 53. eta 161. artikulua).
- Kontu Auzitegia (Espainiako Konstituzioaren 136. artikulua), nahiz eta haren jardura guztia jurisdikzionala ez den.

- Ohiturazko eta tradiziozko Auzitegiak (Espainiako Konstituzioaren 125. artikulua): Valentziako Ur Auzitegia eta Murziako Baratzeko Gizon onen Auzitegia (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 19. artikulua).
- Zinpekoen Auzitegia edo Epaimahaia (Espainiako Konstituzioaren 125. artikulua).
- Auzitegi Militarrak, beren eremuan (Espainiako Konstituzioaren 117.5. artikulua).
- Hasieran aipaturiko Botere Judizialaren Lege Organikoan arauturiko auzitegi eta epaitegi arruntak.

Horrenbestez, esan daiteke era batean edo bestean jurisdikzio-ahalmena duten organoek —hots, epaitu eta epaitutakoa betearaz dezaketenek— Botere Judiziala-Jurisdikzioa osatzen dutela, Estatuko botere politikoan garrantzia gehiago edo gutxiagorekin parte hartzen baitute.

Horrez gain, une horretan nazioarteko itunetatik etorritako auzitegiak ere aipatu behar ditugu. Horiek, ezinezkoa iruditu dakiguen arren, Estatuak jurisdikzioaren gainean duen monopolioa apurtzen dute; baina hori hala gertatzen da Konstituzioak berak bere 93. artikuluan aukera hori aurreikusten duelako; bestela, ezinezkoa litzateke. Artikulu horren arabera, Konstituziotik eratorritako eskumenak —horien artean, jurisdikzio-ahalmena legoke-nazioarteko erakunde bati esleiri dakizkioke, baldin eta lege organikoz baimendutako nazioarteko tratatuen arabera adosten bada. Ildo beretik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 2.1. artikulua xedatzen du “jurisdikzio-ahalmena egikaritzea (...) legeek eta nazioarteko tratatuek zehaztutako epaitegi eta auzitegiei dagokiela eskusiboki”. Horren ondorioz, beste hiru auzitegi gehitu behar dizkiogu lehen aipaturiko zerrendari: Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Europako Batasunaren Justizia Auzitegia eta Nazioarteko Gorte Penala.

Bestetik, Konstituzioak erabiltzen duen bigarren Botere Judizialaren esangura **Botere Judiziala-antolakuntzari dagokio**. Esangura hori murriztagoa da bestea baino, eta Botere Judizialaren Lege Organikoak

araupetutako jurisdikzio-organoak bakarrik hartzen ditu bere baitan, epaitegi eta auzitegi arruntak, alegia. Konstituzioari begiratuz gero, VI. Izenburuak —Botere Judizialaren ingurukoa— erabiltzen du esangura hori. Ildo horretatik, jurisdikzio-ahalmena duten epaile eta magistratu multzo guztiaren zati antolatu bat izango litzateke Botere Judiziala.

Espainiako Konstituzioaren 122. artikulua araber, Botere Judiziala-antolakuntza (hots, Botere Judiziala aipatutako bigarren zentzuan ulertuta) osatzen duten pertsonen honako **ezaugarri** zehatz hauek bete beharko dituzte:

- Karrerako epaile eta magistratuek eratuko duten botere hori.
- Estatuan, kidego bakarra osatuko dute.
- Estatutu juridiko propioa izateaz gain, halaber, autogobernurako organoa izango dute, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, hain zuzen ere.

Une honetan, eta hurrengo ikasgaietan sakonagi ikasiko badugu ere, komenigarria da Botere Judizialaren batasunari buruzko aipamena egitea. Botere Judizialaren batasun-printzipioaren araber, Autonomia Erkidegoetan dauden epaitegi eta auzitegiak ez dira Erkidegoenak, Estatuarenak baizik; hau da, nahiz eta Autonomia Erkidego jakin batean kokatu, Estatuarekin dute dependentzia edo lotura organikoa.

Bukatzeko, eta zortzigarren ikasgaietan sakontasunez aztertuko dugun arren, esan behar dugu Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ez duela jurisdikzio-ahalmenik, hots, ezin duela epaitu ezta epaitutakoa betearazi ere, haren eginkizuna erabat administratiboa baita; izan ere, Konstituzioaren 122.2. artikulua irakurriz gero, esandakoa argi geratzen da: “Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia horren gobernu organoa da. Lege Organikoak bere estatutua eta bere funtzioak zein kideen bateraezintasun-erregimena ezarriko ditu...”. Beraz, Botere Judiziala gobernatzeko organoa da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, baina ez da organo jurisdikzionala.